

OHIZKO OSOKO BILKURA

2017.03.07

Tolosako Udaletxean, 2017ko martxoaren 7an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 7 de marzo de 2017, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegui Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente
Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Maria Lasa Arruabarrena
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Cristian Fernandez Susin

Idazkaria:
Jose Luis Unanue Ugalde

Kontuhartzailea:
Ainhoa Molinos Zubiaurre

Eguneko gaia zerrenda

Orden del día

1. Ondorengo akta onartzea:
2017ko urtarrilaren 31ko Ohizko Osoko bilkurakoa.

1. Aprobación de la siguiente acta:
Sesión ordinaria del 31 de enero de 2017.

- | | |
|---|---|
| 2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea: 2017ko urtarrilaren 1etik 31era (2017/1-2017/172). | 2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía del 1 al 31 de enero de 2017 (2017/1-2017/172). |
| 3. Tolosa Lantzen, S.A., Tolosako Udalaren berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko izendatzea. | 3. Declaración de Tolosa Lantzen, S.A, como medio propio y servicio propio. |
| 4. Tolosako Udalaren kudeaketa-mandatua Tolosa Lantzen S.A.ren alde onartzea. | 4. Aprobación de la encomienda de gestión a favor de Tolosa Lantzen, S.A. |
| 5. Tolosa Lantzen, S.A., Batzar Orokorraren funzioetan: Tolosa Lantzen, S.A.ren Estatutoen aldaketa partziala eta kudeaketa gomendioa onartzea. | 5. En funciones de Junta General de Tolosa Lantzen, S.A.: Modificación parcial de Estatutos de Tolosa Lantzen, S.A. y aceptación de la encomienda de gestión. |
| 6. 2017ko diru-laguntzen eranskina aldatzeko proposamena onartzea. | 6. Aprobación de la propuesta de modificación del anexo de Subvenciones del año 2017. |
| 7. 2017ko prezio publikoen ordenantza aldatzeko proposamena onartzea. | 7. Aprobación de la propuesta de modificación de la ordenanza de precios públicos del año 2017. |
| 8. txitako ekitaldiko fakturen onarpena. | 8. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado. |
| 9. Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala. | 9. Declaración institucional del 8 de marzo. |
| 10.Tolosaldeko Giltzarriaren adierazpena. | 10.Declaración de Tolosaldeko Giltzarria. |
| 11. "Guernica" Gernikara deituriko mozioa. | 11.Moción denominada "Guernica" Gernikara. |
| 12.Garoiako zentral nuklearraren inguruan EHBilduk aurkeztu duen mozioa. | 12. Moción presentada por EHBildu en relacion con la Central nuclear de Garoña. |
| 13.Alkate kurduei elkartasuna adierazteko mozioa. | 13.Mocion en solidaridad con los alcaldes kurdos. |
| 14.Galderak eta eskaerak | 14.Ruegos y preguntas |

Segidan, lehendakariak adierazi du saio hau otsailari dagokiola: *"Izan ere, Inauteriak tarteko astebete atzeratu da eta martxoko ohizko bilkura, ohi den bezala, hileko azkeneko asteartean*

egin da”.

1. Ondorengo akta onartzea:

2017ko urtarrilaren 31ko Ohizko Osoko bilkurakoa.

Izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

1. Aprobación de la siguiente acta:

Sesión ordinaria del 31 de enero de 2017.

2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:

2017ko urtarrilaren 1etik 31era (2017/1-2017/172).

Alkatetzak 2017ko urtarrilaren 1etik 31ra bitartean (2017/1-2017/172) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía del 1 al 31 de enero de 2017 (2017/1-2017/172).

3. Tolosa Lantzen, S.A., Tolosako Udalaren berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko izendatzea.

3. Declaración de Tolosa Lantzen, S.A. como medio propio y servicio propio.

Tolosa Lantzen, S.A., pertsona bakarreko sozietatea Tolosako Udalaren erakunde instrumental bezala sortu zen, Horren bidez, Tolosako Udalak jarduera modu zuzenean kudeatzen du, tokiko korporazioaren % 100eko parte-hartzea duen merkataritza-sozietate baten bidez.

Testuinguru horretan, azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen bidez onartutako Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bateginak (aurrerantzean, «kontratuen legea») administrazio publikoen eta esleitzeko ahalmena duten beste botere batzuen berezko bitartekoaren eta zerbitzu teknikoaren figurak arautzen ditu, horiek espresuki onartuz eta definituz, eta izaera hori lortzeko baldintza hauek ezarriz (kontratuen legearen 24.6 artikulua):

1. Jardueraren ezinbesteko parte berezko bitarteko eta zerbitzu teknikotzat dituzten administrazio publikoentzat eta esleitzeko ahalmena duten botereentzat egitea.

2. Administrazio publikoek eta esleitzeko ahalmena duten botereek beren berezko zerbitzuen gainean duten antzerako kontrola izatea berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko bezala deklaratu nahi den erakundearen gainean. Hori hala dela ulertuko da Administrazio Publikoek eta esleitzeko ahalmena duten botereek nahitaez bete beharreko kudeaketa-mandatuak

agintzeko gaitasuna dutenean, mandatugileak alde bakarrez erabakitako jarraibideen arabera egiten denean eta ordainsariak entitate publikoak onartutako erreferentziako tarifen arabera ezartzen denean.

3. Sozietateak badira kapital guztia titulartasun publikokoa izatea.

Aipatutako kontratuaren legearen arabera, erakunde bat berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko izendatuta, Administrazio Publikoak erakunde horri eskatzen dizkion negozio juridikoak egiteko ez dira lege horretan aurreikusitako lizitazio-prozedurak bete behar (kontratuen legearen 4.1.n artikulua).

Xedapen hori bera berretsi eta zabaldu egin du Europako Legediak, 2014/24/EB Zuzentaraua onartuz (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaraua, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duena). Zuzentaru horren 12. artikuluan zehazten da zer baldintza bete behar dituzten negozio juridiko domestikoek (hau da, botere esleitzailen eta erakunde instrumentalen arteko negozioiek) Zuzentaruaren aplikazio-eremutik kanpo geratzeko. Interesatzen zaigunerako, lehen aipatutako kontratuen legearen 24.6 artikuluko berberak dira.

Hortaz, esleipena egiten duen Administrazio Publikoaren eta esleipena jasotzen duen erakundearen -lehengo berezko bitarteko eta zerbitzu teknikoaren- arteko kontratuak kontratuen legetik kanpo geratzen dira, eta ez dituzte arau horretan jasotako kontratazio-prozedurak bete behar. Horrek ez dio kalterik egiten berezko bitarteko eta zerbitzu teknikoaren izaera duen erakundeak agindu dizkion prestazioak egin ahal izateko. Horiek egiteko kontratuen legean aurreikusitako prozedurak egin beharko dira.

Hori esanda, gehitu behar dugu kontratuen legeak (24.6 artikulua, *in fine*) eskatzen duela berezko bitarteko eta zerbitzu teknikoaren izaera espresuki jasotzea erakundeak sortu duen arauan edo estatutuetan. Horiek, gainera, ezarri beharko dute ezinezkoa dela berezko bitartekoak beren botere esleitzailen deialdi publikoetan parte hartzea (horren kalterik gabe, lizitatuak bakar bat ere aurkezten ez denean, deialdi publikoaren prestazioa egiteko agindu ahal izango zaie). Izatez, estatutuen aldaketa jarraian egiaztatuko da, osoko bilkura Tolosa Lantzen, S.A., Pertsona bakarreko sozietate bezala eratzten denean.

Hori guztia kontuan hartuta, egiaztatu dugu Tolosa Lantzen, S.A., pertsona bakarreko sozietatearen kasuan bere bazkide den Administrazio Publikoaren berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko izendatzeko legezko baldintza guztiak betetzen direla:

1. Tolosa Lantzen, S.A. pertsona bakarreko sozietateak jarduera bat egiten du Tolosako Udalarentzat izaera instrumentalarekin eta era eskusiboan. Hortaz, bete egiten da lehen baldintza, kontratuen legearen 24.6 artikuluan eta 2014/24/EB Zuzentaruaren 12.1 artikuluan jasotakoa.

2. Kontuan hartuta Tolosa Lantzen, S.A., pertsona bakarreko sozietatearen batzar orokorra Tolosako Udaleko osoko bilkura dela, sozietatearen administrazio-kontseiluko kideak izendatzen dituen organoa batzar orokorra dela eta Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Kapital-Sozietatei buruzko Legearen testu bateginaren 161. artikuluan arabera sozietatearen batzar orokorraren egitekoak direla «*administrazio-organuari jarraibideak ematea edo organo horrek kudeaketaren inguruan hartzen dituen erabaki jakin batzuk baimentzea*», esan daiteke Tolosako Udalak bere zerbitzuen gainean duen kontrolaren antzerako kontrola duela Tolosa Lantzen, S.A., pertsona bakarreko sozietatearen gainean. Hortaz, bete egiten da bigarren baldintza, kontratuen legearen 24.6

artikuluaren eta 2014/24/EB Zuzentzarauaren 12.1 artikuluan jasotakoa.

3. Azkenik, nabarmendu behar da Tolosa Lantzen, S.A., pertsona bakarreko sozietatearen partizipazio sozial guztien jabea Tolosako Udala dela eta, ondorioz, bete egiten dela ere kapital sozial guztian titulartasun publikokoa izateko baldintza.

Hori horrela, Udalbatzak, 2017ko otsailaren 21eko Kirol batzordeko diktamenarekin bat etorri, aho batez,

ERABAKI DU

Lehena.- Tolosa Lantzen, S.A., Tolosako Udalaren berezko baliabidea eta zerbitzu tekniko izendatzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 24.6 eta 4.1 n) artikuluetan aurreikusitakoaren arabera (2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zen aipatutako testu bategina).

Bigarrena.- Akordio horren berri ematea Tolosa Lantzen, S.A., pertsona bakarreko sozietateari.

4. Tolosako Udalaren kudeaketa- mandatua Tolosa Lantzen S.A.ren alde onartzea.

4. Aprobación de la encomienda de gestión a favor de Tolosa Lantzen, S.A.

Tolosa Lantzen, S.A., udal-sozietate publiko bat da eta haren kapital guztia Tolosako Udalarena da. Helburu soziala, Estatutuetako 2. artikulua lehenero arabera, ondorengoa da:

“1.- Sozietateak helburu du ekipamendu- eta zerbitzu-erakinak hartzeko lurzorua sustatzea, ordenatzea, urbanizatzea, erostea eta saltzea, eta, era berean, helburu du sustatzea, proiektatzea, eraikitzea, erostea, saltzea edo beste modu batzuetan lagatzea edo kudeatzea zerbitzu- eta dotazio komunitarioetarako erakinak, onura publikoa edo pribatua izan dezaketenak, TOLOSAREN eta bertako biztanleen mesedetan.

2.- Orokorrean, kudeatzea, jardutea eta Udalarekin lankidetzan aritzea aurreko atalean adierazitako gaietatik Udalak esleitutako gaietan.

Sozietatearen kapital guztia titulartasun publikokoa da, eta bere partizipazio sozial guztiak Tolosako Udalarenak direnez, sozietatea Tolosako Udalaren berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko da, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategina onartzen duenak, bere 24.6 artikuluan xedatutakoari begira. Bere Administrazio Publiko bazkideak agindu diezazkioke sozietatearen helburu

sozialarekin zerikusia duten lanak, zerbitzuak edo beste edozein jarduketa, kasu bakoitzerako dagozkion organoek zehazten dituzten termino eta baldintzetan.

Sozietateak ezin izango du parte hartu Tolosako Udalak deitutako lizitazio publikoetan, baina lizitatzailerik bakar bat ere aurkezten ez denean, deialdi publikoaren prestazioa egiteko agindu ahal izango zaio.”

Tolosa Lantzen, S.A., Tolosako Udalaren berezko baliabidea eta zerbitzu tekniko izendatua izan da, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen testu bateginaren 24.6 artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituelako (2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartu zen aipatutako testu bategina).

Berezko baliabide eta zerbitzu tekniko izendatzeko adierazpen hori Estatutuen 2. artikuluan jaso da:

«Sozietatearen kapitala titulartasun publikokoa da bere osotasunean, bere partizipazio sozialak Tolosako Udalarenak direlako, eta Tolosako Udalaren berezko bitarteko eta zerbitzu sozialaren izaera du, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 24.6 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako. Bazkidea den Administrazio Publikoak lanak, zerbitzuak edo bere helburu sozialarekin lotutako beste edozein jarduera egiteko agindu ahal izango dio, dagozkion organoek kasu bakoitzean ezartzen dituzten termino eta baldintzekin.

Sozietateak ezingo du parte hartu Tolosako Udalak deitutako lizitazio publikoetan, nahiz eta, ez bada lizitatzailerik aurkezten, Udalak agindu ahalko dion lizitazioaren xede zen prestazioa ematea.»

Horrela, bete egiten dira une honetan Tolosako Udalak kudeaketa-mandatu hau egiteko Tolosa Lantzen, S.A.ren alde: Tolosako Usabal Kiroldegiaren, Berazubi Estadioaren, Uzturpe eta Beotbiar Frontoein kudeaketa gauzatzeko. Baldintza hauek azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 24.6 eta 4.1.n) artikuluetan eta kontratazio publikoari buruzkoa den eta 2004/18/EE Zuzentaraua indargabetzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentaruaren 12. artikuluan jasotakoak. Mandatu hau aipatutako lege horren eta zuzentaru horren aplikazio-eremutik kanpo geratuko da.

Hori horrela, kontutan izanik Kirol batzordeak 2017ko otsailaren 21ean jaulkitako diktamena, Udalbatzak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehen.- Xedea

Tolosako Udalak kudeaketa-mandatu gauzatzea Tolosa Lantzen, S.A., udal-sozietate publikoaren alde (erakunde instrumental bezala), zerbitzu hau emateko: Tolosako Usabal

kiroldegiaren, Berazubi Estadioaren, Uzturpe eta Beotibar Frontoien kudeaketa.

Bigarrena.- Erakunde mandatariaren betebeharrak

Mandatu gaiztatzerakoan datuak babesteko araudia zorrotz errespetatuko da.

Tolosa Lantzen, S.A.k, aurreko ekitaldian mandatu honen ondorioz egindako jardueren txosten bat entregatuko dio Tolosako Udalari.

Hirugarrena.- Kudeaketa-mandatu betetzeko beharrezko bitarteko materialak

Tolosa Lantzen, S.A.k badu kudeaketa-mandatu hau betetzeko beharrezkoak diren materialak erabiltzeko gaitasuna ematen dion titulua gaur egun.

Laugarrena.- Kudeaketa-mandatu betetzeko beharrezko giza baliabideak

Tolosa Lantzen, S.A.k badu kudeaketa-mandatu hau betetzeko beharrezkoak diren giza baliabide hauek:

- Kirol Teknikaria.
- Udaletik adskribitutako pertsonala: monitoreak, harretagileak eta mantenimendurako pertsonala.

Bosgarrena.- Erantzukizuna

Tolosa Lantzen S.A.k mandatuko funtzioak behar bezala egitearen erantzukizuna izango du, eta akatsen ardura bere gain hartu beharko du.

Seigarrena.- Erregimen ekonomikoa

Tolosako Udalak zerbitzu hauek ematen dizkio Tolosa Lantzen S.A. enpresari:

- Lan arloa: kontratazioak kudeatzea; langileen nominak.
- Lege eta zerga arloa: aholkularitza orokorra ematea sozietateari, kontratuen, administrazio eta zergen gainean.

Tolosako Udalak emandako zerbiatzuen ondorio bezela kanon finko bat ordainduko dio: Hasiarako kanona 270.000 eurokoa ezartzen da. Esleitutako Udal kirol instalazioen ustiapen kontuan positiboa emango balu kanon aldagaia ordainduko dio.

Zazpigarrena.- Indarraldia eta amaiera

Kudeaketa-mandatu hau azkendu egingo da:

- Bere indarraldia amaitzen delako Udalak horrela erabakita.

- Udalak baliogabetzea adosten duelako.

Zazpigarrena.- Mandatua aldatzea

Kudeaketa-mandatu hau Tolosako Udalaren erabaki bidez aldatu ahal izango da, haren xedea hobeto betetzeko beharrezkoa bada.

Zortzigarrena.- Izaera eta erregimen juridikoa

Mandatu hau administratiboa da, eta, beraren interpretazioari eta garapenari dagokienez, aginduzkoa izango da antolamendu juridiko-administratiboa, eta alderdiek berariaz men egiten diote administrazioarekiko auzien jurisdikzioari.

2014/24/EB Zuzentarauaren 12. artikuluan (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentzua, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EE Zuzentzua indargabetzen duena) eta azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 24.6 eta 4.1.n) artikuluen arabera (3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena), eta Tolosa Lantzen, S.A., Tolosako Udalaren berezko bitartekoa eta zerbitzu teknikoa denez, kudeaketa-mandatu hau aipatutako zuzentzua eta lege horien aplikazio-esparrutik kanpo dago.

Horren kalterik gabe, kudeaketa-mandatu honek kontratu-izaera du, eta ez da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15. artikuluan aurreikusitako administrazio barneko mandatua.

5. Tolosa Lantzen, S.A., Batzar Orokorraren funtzioetan: Tolosa Lantzen, S.A.ren Estatutoen aldaketa partziala eta kudeaketa gomendioa onartzea.

5. En funciones de Junta General de Tolosa Lantzen, S.A.: Modificación parcial de Estatutos de Tolosa Lantzen, S.A. y aceptación de la encomienda de gestión.

Tolosa Lantzen, S.A., udal enpresako batzar orokor Unibersalaren jardunean, Tolosa Lantzen, S.A., sozietateko Aparteko Batzar Orokor Unibertsalaren deialdia egin delarik, kapital sozial osoaren bazkide bakarra bertan delarik, Kirol batzordearen diktamena kontutan izanik, aho batez

ERABAKI DA

Lehena.- Gai zerrenda finkatzea:

1. Batzar Orokor Unibertsal gisan eratzea.
2. Tolosa Lantzen S.A.ko Estatutoen aldaketa partziala -2.artikulu- eta kudeaketa gomendioa onartzea.
3. Sozietateko Administrazio Kontseiluko lehendakariari ahalmena ematea publiko bihurtzeko hartutako erabakiak.

4. Bilkurako akta onartzea.

Bigarrena.- Sozietatearen Batzar Orokor Unibertsala eratutzat jotzea.

Hirugarrena.- Tolosa Lantzen, S.A.ko Estatutoen 2.artikulua aldatzea, era honetan:

“1.- Sozietateak helburu du ekipamendu- eta zerbitzu-eraikinak hartzeko lurzorua sustatzea, ordenatzea, urbanizatzea, erostea eta saltzea, eta, era berean, helburu du sustatzea, proiektatzea, eraikitzea, erostea, saltzea edo beste modu batzuetan lagatzea edo kudeatzea zerbitzu- eta dotazio komunitarioetarako eraikinak, onura publikoa edo pribatua izan dezaketenak, TOLOSAREN eta bertako biztanleen mesedetan.

2.- Orokorrean, kudeatzea, jardutea eta Udalarekin lankidetzan aritzea aurreko atalean adierazitako gaietatik Udalak esleitutako gaietan.

Sozietatearen kapital guztia titulartasun publikokoa da, eta bere partizipazio sozial guztiak Tolosako Udalarenak direnez, sozietatea Tolosako Udalaren berezko bitarteko eta zerbitzu tekniko da, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategina onartzen duenak, bere 24.6 artikuluan xedatutakoari begira. Bere Administrazio Publiko bazkideak agindu diezaioke derrigorrez egitea sozietatearen helburu sozialarekin zerikusia duten lanak, zerbitzuak edo beste edozein jarduketa, kasu bakoitzerako dagozkion organoek zehazten dituzten termino eta baldintzetan.

Sozietateak ezin izango du parte hartu Tolosako Udalak deitutako lizitazio publikoetan, baina lizitatzailerik bakar bat ere aurkezten ez denean, deialdi publikoaren prestazioa egiteko agindu ahal izango zaio.”

Laugarrena.- Lehen plenoak erabakitako kudeaketa gomendioa onartzea.

Bosgarrena.- Ahalmena ematea Administrazio Kontseiluko lehendakariari, agertzeko berak hautatutako notarioaren aurrean eta publiko bihurtzeko aurreko erabakiak, izenpetuz bidezko dokumentu publikoak, baita konpontzekoak, zuzentzekoak, argitzekoak, berrestekoak edo gehitzekoak ere; eta, era berean, eskatzeko bidezko idazpenak egin daitezela Merkataritza Erregistroan.

Seigarrena.- Onartzea, aho batez, idazkariak idatzitako bilkura akta, Sozietatearen Aparteko Batzar Orokor Unibertsalari dagokion guztian.

6. 2017ko diru-laguntzen eranskina aldatzeko proposamena onartzea.

6. Aprobación de la propuesta de modificación del anexo de Subvenciones del año 2017.

Partehartzeak:

...Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeko lehendakaria : 2017ko aurrekontuetan jasota zeuden bi kopuruetan bi aldaketa proposatzen dira norgehiagoka araubidepean dirulaguntzak emateko zailtasunak daudelako. Bata Gizarte Zerbitzuetako arloko Zutani elkarteari 7.000 € nominatibo bezala jartzen dira. Eta bestea, Ingurumen saileko diru laguntza bat da, Bizi-biziki elkarteari, 6.000 €.

Jarraian, Udalbatzak, aho batez, bere egin du du Ogasun Batzordeak 2017ko otsailaren 22an jaulkitako diktamena:

“Ogasun batzordeak 2017ko otsailaren 22an, besteak beste, ondoren aipatzen dena diktaminatu du:

“1) Tolosako Udalak Asociación de Solidaridad y Ayuda Humanitaria “Zutani-Tolosa”rekin hitzarmen bat sinatu nahi du, entitate honek pobrezian eta gizarte-bazterketaren arriskuan dauden Tolosako familiei oinarrizko elikagaien banaketa zerbitzuak ematen jarraitzeko.

Ikusita dauden zailtasunak diru-laguntza norgehiagoka araubidean emateko, kontzeptu honetarako ezarritako kopurutik 7.000 euro ateratzea diktaminatu da eta nominatibo bezala izendatzea Asociación de Solidaridad y Ayuda Humanitaria “Zutani-Tolosa”ri dagokion diru-laguntza.

2) 2017ko aurrekontuetan, Ingurumen saileko diru-laguntzen atalean 12.000 euroko partida bat onartu zen. 38/2003 diru-laguntzen lege orokorraren 28.artikuluaren arabera, diru-laguntza batzuk zuzenak izan daitezke, konkurrentzia gabe. Horretarako baldintza batzuk bete behar dira.

2015 eta 2016. urteetan Bizi biziki SL aholkularitzak Aktibatu jardunaldiak antolatu zituen Tolosan. Jardunaldi hauetan berrikuntza, natur turismoa eta iraunkortasunarekin erlazionatutako gaiak jorratu ziren. Jardunaldi hauek oso ondo baloratuak izan ziren, sektoreko profesionalei, enpresaburuei, tokiko eta eskualdeko eragile publikoei etengabeko trebakuntzarako eta dibulgaziorako elkargune bat eskaini zielako. Aktibatu, natura turismoari buruz Euskal Herrian egiten diren jardunaldi garrantzitsuenak bihurtu dira eta hauen egoitza Tolosa izatea onuragarria da herriarentzat. Bizi biziki aholkularitzak 2017ko apirilean berriz ere jardunaldi hau Tolosan ospatzeko proposamena egin du. Jardunaldi hau burutzeko diru-laguntza eskaera eginez Tolosako Udalari.

Ingurumen sailetik jasotako txostenaren arabera, Aktibatu jardunaldiak bezalako ekimenak sustatzea oso interesgarria da naturarekin eta iraunkortasunarekin zerikusia duen turismoa bultzatzeko eta Tolosako landa eremuaren garapenean aukera berriak aztertzeko. Gero eta

ospe handiagoa lortzen ari diren jardunaldi hauek Tolosan egoitza izatea. Beraz, jardunaldi hauen interes publikoa argia da. Beraz, diktaminatu da 6000 euro nominatibo bezala izendatzea.

Beraz, honela geratuko ziren:

PARTIDA	ONURADUNA	HELBURUA	TIPOA	AURREKONTUA
0500.481.01.231.00	ELKARTEAK	Gizarte zerbitzutako laguntzak elkarteei	concurrentia competitiva	46.200,00
0500.481.01.231.00	ZUTANI	Elikadura Bankua	nominatiba	7.000,00
GUZTIRA				53.200,00

PARTIDA	ONURADUNA	HELBURUA	TIPOA	AURREKONTUA
1100.481.01.172.00	BESTERIK	Sentsibilizazio dirulaguntzak	norgehiagoka	6.000,00
1100.481.01.172.00	BIZI BIZIKI SL	Natura eta turismo jardunaldiak	nominatiboa	6.000,00
GUZTIRA				12.000,00

“

7. 2017ko prezio publikoen ordenantza aldatzeko proposamena onartzea.

7. Aprobación de la propuesta de modificación de la ordenanza de precios públicos del año 2017.

Partehartzeak:

... Begoña Tolosa Mendiá, Ogasun batzordeko lehendakaria :Zerbitzuak eman eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio publikoak arautzeko proposamena dakarkigu: batetik, Leidor zinema aretoaren zerbitzuari dagokionez, gaur egun dauden prezioak argitaratzea da. Bigarrena, berriz, atera berria diren Turismo bidaia-kuadernoak dira, dagokion batzordeak onartu zuen eta argitaratu bezain pronto martxan jarriko da.

Jarraian,Udalbatzak, aho batez, bere egin du du Ogasun Batzordeak 2017ko otsailaren 22an jaulkitako diktamena:

“2017rako Ordenantza Fiskalen aldaketa:

3. PREZIO PUBLIKOAK

3.1. Zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko prezio

3.1.Dictamen para la aprobación de la Ordenanza fiscal reguladora de los

publikoak arautzen dituen Ordenantza fiskala onartzeko diktamena

Precios Públicos por la prestación de servicios o la realización de actividades.

3.1.3. Leidor zinema aretoaren zerbitzua

3.1.3. Servicios de Cine Leidor

APLIKAZIO ARAUAK

NORMAS DE APLICACIÓN

1) Tolosako Udalak Zinemaren zerbitzua emateko prezio publikoak ezarri eta exijitzen ditu, Ogasun Lokalak erregulatzeko dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren arabera.

1) Se establecen y exigen precios públicos por el disfrute del servicio de Cine Municipal, de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales

2) Ordenantza hau Udalerri osoan aplikatuko da.

2) La presente Ordenanza será de aplicación en todo el término municipal.

3) Ordaindu beharreko kopurua prezio publikoarengatik ondorengo izango da:

3) El importe a satisfacer por este precio público será el siguiente:

LEIDOR ZINEMAREN ZERBITZUA	SERVICIO CINE LEIDOR	ORDINARIA ARRUNTA EUROAK 2017	REDUCIDA MURRIZTUA EUROAK 2017
1. Zine Komertziala	Cine Comercial	5,00	4,00
2. Zine Foruma	Cine Forum	4,00	2,00
3. Ikuslearen Eguna	Día del espectador	4,00	4,00
4. Haurren saioak	Sesión infantil	4,00	

4) Tarifa hauek aplikatzeko saio desberdinak daude:

4) A efectos de aplicación de estas tarifas se establecen diferentes tipos de sesiones:

- Zine Komertziala: Asteburuetan (ostiraletik igandera) eskaintzen diren saio orokorrak.
- Zine Foruma: Tolosako Zine Klubak proposaturiko filmak, jatorrizko bertsioan, ostegunetan.
- Ikuslearen eguna: Astelehenetan, 20:30tan.
- Haurren saioak: Igandeetan, 17:00tan.

- Cine Comercial: sesiones de cine que se ofrecen los fines de semana (de viernes a domingo)
- Cine Forum: Películas propuestas por el Cine Club de Tolosa, en versión original, los jueves.
- Día del espectador: Los lunes a las 20:30 horas
- Sesiones infantiles: Los domingos a las 17:00 horas.

Udalak eskumena du saioen eguna eta orduak aldatzeko. Aldaketa horiek, beti ere, aldez

El Ayuntamiento se reserva el derecho a cambiar las sesiones de día y hora. Dichos

aurretik publikatuko dira.

cambios se publicaran previamente.

5) Tarifa murriztua aplikatuko da ondorengo pertsoneri, beti ere NANA aurkeztu beharko dutelarik:

- 65 urtetik gorako pertsonako
- Gazte-txartela dutenak edo 14 urte baino gutxiago dutenak

5) Se aplicará la tarifa reducida a las siguientes personas, siempre que presenten el DNI:

- Personas mayores de 65 años
- Personas titulares de tarjeta joven o menores de 14 años

3.1.4. Udal argitalpenen salmenta

3.1.4. Venta de publicaciones municipales

APLIKAZIO ARAUAK

NORMAS DE APLICACIÓN

1) Tolosako Udalak udal argitalpenen salmentaren zerbitzua emateko prezio publikoak ezarri eta exijitzen ditu, Ogasun Lokalak erregulatzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren arabera

1) Se establecen y exigen precios públicos por el disfrute del servicio de venta de publicaciones municipales, de conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 11/1989, de 5 de julio, Reguladora de las Haciendas Locales

2) Ordenantza hau Udalerri osoan aplikatuko da.

2) La presente Ordenanza será de aplicación en todo el término municipal.

3) Ordenantza honetan araututako prezio publikoa ordaintzera behartuta daude, Udal honek argitaratutako liburuak eskuratzen dituztenak.

3) Están obligados al pago del precio público, regulado en esta ordenanza, los que se benefician de la adquisición de los libros editados por este Ayuntamiento.

4) Ordaindu beharreko kopurua prezio publikoarengatik ondorengoa izango da:

4) El importe a satisfacer por este precio público será el siguiente:

UDAL ARGITALPENEN SALMENTA	VENTA PUBLICACIONES MUNICIPALES	EUROAK 2017 (BEZa barne)
Turismoko bidaia-kuadernoa	Cuaderno de viaje de Turismo	1,00

Behin Kultura departamentuko eta Turismo

Una vez analizadas las propuestas recibidas

departamentuko proposamenak aztertu ondoren, bozkatu egin da, ondorengo botoekin:

Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
Jokin Azkue (EAJ): Aldeko botoa
Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa

del departamento de Cultura y del departamento de Turismo, se ha procedido a la votación, con los siguientes votos:

Begoña Tolosa (EAJ): Aldeko botoa
Jokin Azkue (EAJ): Aldeko botoa
Cristian Fernandez (PSE): Aldeko botoa

Ondorioz, Ogasun batzordeak, diktamena aldekoa izanik, Osoko Bilkurak onar dezan proposatzen du.

Por lo que la Comisión de Hacienda, dictamina favorablemente y propone al Pleno su aprobación.”

8. Itxitako ekitaldiko fakturen onarpena.

8. Aprobación de facturas del ejercicio cerrado.

Partehartzea:

...Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeko lehendakaria : “2016ko urteko kontuak ekonomikoki ixten ari bagara ere, oraindik 2016ko data duten fakturak iristen ari dira. Hauen ordainketa 2017ko aurrekontuaren kontra ordainduak ahal izateko Udalbatzaren baimena beharrezkoa da .”

Hortaz, Udalbatzak, aho batez, bere egin du du Ogasun Batzordeak 2017ko otsailaren 22an jaulkitako diktamena:

Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 61.artikuluaren arabera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoa, kontabilitate ekitaldia bat dator aurrekontu-ekitaldiarekin. Jarraian zehazten diren faktura hauek 2017ko ekitaldian jaso dira, baina 2016ko ekitaldiko faktura data dute.

DATA	PARTIDA	HORNITZAILEA	FTRA.ZK.	KONTZEPTUA	KOPURUA
2016-12-21	0100.226.06.924.00	Prometea SC	28	Amarotzeko bizilagunek auzoan eta dotazioen eta ekipamenduen arloan gauzatu beharreko lehentasunezko ekintzak proposatu, eztabaidatu eta erabakitzeke parte hartze prozesuaren garapena eta ebaluazioa.	10.849,16
2016-12-05	1400.226.06.231.60	Tolosaldea Garatzen	204/2016	Guretzako jatorri desberdinetako emakume taldearen dinamizazioa eta ekintza osagarriak	5.000,00
2016-12-21	0800.211.01.333.00	Goena SL	2533	Trabajos realizados en el palacio de Aramburu los día 22 y 25 de Noviembre y 1,14 y 19 de diciembre para la localización y arreglo de varias averías	2.265,12
2016-12-09	0800.628.01.332.10	Babel liburu denda	272	Liburuen erosketak	240,45
2016-12-10	0800.628.01.332.10	Babel liburu denda	271	Liburuen erosketak	178,75
2016-11-30	0800.628.01.332.10	Aisialdirako Elkargunea SL	1630514-1	Liburu eta dvd erosketak	647,44
2016-12-31	0800.628.01.332.10	Aisialdirako Elkargunea SL	1630585-1	Liburu eta dvd erosketak	266,44
2016-12-31	0800.628.01.332.10	Aisialdirako Elkargunea SL	1630582-1	Liburu eta dvd erosketak	286,10
2016-12-31	0500.471.01.231.92	Uzturre asistentzia gunea	21794	Jangela sozialeko zerbitzua	566,25
GUZTIRA					20.299,71

Bestalde, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 46.artikuluak xedatutakoaren arabera, ekitaldiko aurrekontu orokorra abenduaren 31n itxiko da ordu arte aintzatetsitako eskubideei eta betebeharre dagokienez. 2016ko abenduaren 31an obligazio hauek onartu gabe zeuden eta 2017ko aurrekontutik onartuko dira. Beraz, faktura hauek onartzeko eskumena Plenoari dagokio.

9. Martxoaren 8ko adierazpen instituzionala.

9. Declaración institucional del 8 de marzo.

Partehartzeak:

14:52 Onintza Lasa Arteaga (EHBildu): *“Gaurko mozioarekin EHBildutik bat egingo dugu. Izan ere, arlo guztietan eta baita ordezkari eta kargu publikoetan ere, berdintasunaren alde zer egin dagoelako, oraindik ere. Egia da martxoak 8 inguruan hainbat gai eta arlo jorratu daitezkeela, izan ere, genero desberdintasun eta desorekak nabariak dira, eta oraingoan ordezkari publiko eta botere guneen inguruko gogoeta egokitzen zaigu. Bat egingo dugu, azpimarratuz gauza askotan eta egunerokotasunean hainbat arlori begirada jarri behar diogula, zorrotz gainera. Mozio honi dagokionez esan benetako orekarik gabe ez dagoela benetako demokrazia. Hau askotan aipatu izan dut, hainbat esparruetan eta esloganean izateko arriskuan erortzen bagara ere, uste dut azpimarratu egin behar dela egia borobila delako. Eginiko deklarazioan, aspaldian, esaten zen emakumearen paperen sustapena eta berdintasun egoeran, bere parte hartze osoa berdintasun egoera batean izateko arlo guztietan, baita erabakiak hartzeko prozesuetan ere, botere guneetan, oinarritzakoak direla berdintasun garapen eta bakea lortzeko. Beraz, gizarte demokratiko bat eta justu bat lortzeko erabaki guneetan ere emakumeak egon behar dute. Aipatu den bezala, egia da, momentu honetan alkatea emakumea da, aurretik ere Tolosak izan du beste emakume alkatea, baina beste esparrutan, oraindik ere, urrun gaude eta, zer esanik ez, mundu mailan. Hainbat zifra ere egon daitezke. Beraz, bat egingo dugu. Baita ere animatu herritarrei hainbat ekitaldi egoten direlako martxoaren 8an inguruan, Udaletik, erakundeetatik eta gizarte eragileak antolatzen diren ekitaldietan partehartzera. Jarraitu egin behar dugu horretan. Gaurkoa aprobetxatu esateko eraso sexisten protokoloan hainbat hutsune nabari izan ditugula eta proposamenak egingo ditugula arlo horretan ere hobetzeko.”*

... Alkatea: *“Esan den bezala, EUDELen landutako martxoaren 8ko adierazpenak erreferentzi egiten dio udaletan dagoen emakume ordezkariari, baita zuzendaritza organoetan dagoen emakume kopuruari eta, azken finean, emakumeak erabakiak hartzeko daukan gaitasunari. Erronka zein da? Ospakizun konkretutik haratago, udal planifikazioan genero ikuspuntua*

ezartzea zeharkakotasunez. Tolosako III. Berdintasun planak bere baitan jasotzen ditu errealitate konkretu honi aurre egiteko neurri konkretuak: formakuntza arloan, gogoeta esparruan, esparruak sortuz eta azken finean emakume hautetsien partaidetza sustatzeko helburuarekin, Maitek aipatu duen modura. Tolosako udalaren portzentai kuantitatiboetara erreparatzen badiogu aurreko legegaldian baino piska bat emakume ordezkari handiagoa badago orain. Aurtengo korporazioan % 53a da Osoko Bilkura honetan emakumeon ordezkari, eta batzorde informatiboetan Lehendakariak % 62 dira emakumeak eta % 38 gizonezkoak. Azpimarratu: herrialde aurreratuenak, gizarte aurreratuenak berdintasunean oinarrituta daudela ez arrazoi hutsarengatik, baizik eta emakumeak gizarteari egiten dioten ekarpena ezinbestekoa delako, gutxienez, gizonek egiten diotenaren adinakoa herri demokratikoko eta inklusibo bat izateko. Horrela izan da urtetan, nahiz eta emakumearen ikusgarritasuna edo ikusitasuna erabat estalia egon den. Historian zehar emakumeek egin duten papera bai zaintzaile, bai etxeoandere bezala egin duten paperez gain, ekarpen handia egin dutelako gure herriko garapen politiko, zientifiko, sozial eta ekonomikoan. Oraindik ere ikusgarritasun horretan zailtasunak bilatzen ditugu bai Kirolean, Literaturan, Zientzietan edota Politikan, eta horregatik neurriak hartzea ezinbestekoa da. Saretan zita bilatu dut, uste dut oso egokia, erderaz dago eta erderaz irakurriko dut:

“La historia la cuentan siempre los vencedores y las mujeres hemos sido las vencidas en todas las guerras, no solo de las bélicas. Es urgente contar la historia de nuevo tal y como ha transcurrido. Dando a las mujeres la verdadera dimensión que merecen, sacándolas del silencio que las niega en los libros de historia y dándoles el protagonismo real que han tenido, limpiando a los personajes femeninos del destino o bien ejemplarizante de reinas o santas o bien de contramodelo para que el resto de mujeres aprendamos lo que no debemos hacer”

Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Berdintasuna batzordeko lehendakariak adierazpena irakurri du. Honela dio:

“MARTXOAREN 8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Joan den urrian egindako Europako Kontseiluko Tokiko eta Eskualdeetako Agintarien Kongresuan (CPLRE) ondorioztatu zen emakumeek behar baino ordezkari gutxiago dituztela udaletan erabaki politikoak hartzeko, eta oztopo desberdinei aurre egin behar dietela tokiko politikan berdintasunezko sarbidea eta partaidetza izateko.

EAEko 2015eko udal-hauteskundeetan izandako emaitzak generoaren ikuspegitik hartzen baditugu kontuan, baieztatu dezakegu 3/2007 Lege Organikoaren eragina islatu dela gure errealitate politikoan; izan ere, gaur egun %41,3 da emakumezko hautetsien portzentaia, hau da, aurreko legegintzaldian baino %2,5 gehiago.

Haatik, jaso ditugun datuei erreparatuz gero, badira oinarritzko desberdintasun batzuk. Esaterako, biztanleria handiena duten hamar euskal herrietatik bi baino ez dira emakumezko alkateak dituztenak. Are gehiago, gauza jakina da orain arte ez duela hiriburu euskaldun batek ere emakumezko alkaterik izan.

Halaber, 2015ean, eta alderdi politikoen hauteskunde-zerrendei dagokienez, serenad horien %32,85tan bakarrik izan da emakumezko bat zerrendaburu. Azkenik, egonkortasunari erreparatuz, emakumeak jeneralean astiroago igotzen dira lidergopostuetara eta denbora laburrago irauten dute postu horietan.

Baina, nolakoa da gure udalerrian dagoen gizon eta emakumeen ordezkariak? Osoko Bilkurak zein Gobernu Batzordeak betetzen dute emakume eta gizonen ordezkariak orekatuak buruz agindutakoa. Informazio batzordeen kasuan, 13 batzordeetatik 8tan da emakume bat buru; zazpi dira parekotasun-irizpidea betetzen dutenak; baina badira sei, aipatu irizpidea betetzen ez dutenak.

Ekonomiaren Sustapena eta Hirigintza eta Azpiegiturak sailek, biak ere pisu eta garrantzia handikoak gizartean, ohiko genero-estereotipoen baitan jarraitzen dute.

Gure emakume hautetsiek, ordea, orain arte maskulinizatuta zeuden sailetan egin dute lekua (Ingurumena, Auzoak, Obrak eta Zerbitzuak eta Kirola sailetan, adibidez).

Jakin-mina sortzen duen beste gai bat da zenbat emakumek eta gizonak egiten dituzten lanaldiak etxean eta etxetik kanpo euren funtzio publikoak gain; emakumeek zergatik dituzten zailtasun gehiago erabakiak hartzeko postuetara iristeko; zer dela eta egiten zaion zailagoa emakumeari lidergoa lortzea; eta zerk eragiten duen gizonetako egonkortasun luzeagoa izatea udaleko politika-arloan, eta abar.

Honegatik guztiagatik, eta otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 23.artikulua betetzeko, zeinak hau esaten duen: Euskal herri-aginte guztiek, beren zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuak kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatuak izan dadila sustatu behar dute. Xede horretarako, beharrezkoak diren arauzko neurriak edo bestelakoak hartuko dituzte, Tolosako Udalak ondorengo gomendioak hartzen ditu bere gain:

1.- Behar diren mekanismoak martxan jartzea emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatuak izan dadin kide anitzeko organoetan, organo aholku-emaitetan eta erabakiak hartzekoetan (epaimahaietan, auzitegietan, balorazio batzorde teknikoetan, e.a.) eta edozein herri organoetarako izendapenetan.

2.- Udal-programa eta politiketan generoaren ikuspegia inplementatzen eta sustatzen jarraitzea.

3.- Berdintasun-arloko gaikuntza indartzea, urtero Formazio Plan bat eginez, udalarlo guztietako teknikarientzat eta politikarientzat, udal-programa eta politiketan berdintasun-printzipioa txertatzeko teknikari eta politikari horiei formakuntza emateko helburuarekin.

4.- Ahal den neurrian, Berdintasun sailaren aurrekontua urtetik urtera handitzea.

5.- Tolosako Berdintasunerako III. Planaren 2.1.3. atalean jasota dauden neurriak martxan jartzea, udalerrian emakumeen partaidetza soziopolitikoak sendotzeko eta emakume hautetsiekin garatutako ekintzak garatzeko dagokienean, eta, hauen aipua esplizitua egin:

5.1.- Tolosako emakume hautetsien partaidetza sustatzea bai Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako ekimenetan bai Emakunde edo bestelako erakundeek garatutakoetan. Modu horretara, udal-mailako ardurak bere gain hartzerakoan sorteen diren zailtasunak atzeman eta neutralizatzeko eta babesteko sareak sortu eta hauen arteko elkarreragina bultzatzeko bidea eraiki.

5.2.- Emakumezko zinegotziek Jabetze Eskolak antolatutako gune formatzaileetan parte hartzea bultzatzea.

5.3.- *Emakumeen partaidetza sozio-politikoari buruzko formakuntza zehatz baten alde egitea Tolosako Jabetze Eskolaren baitan.*

6.- *Partaidetza-prozesuak erraztea ondorengo gaiak indartzeko gune bat antolatzearen gainean eztabaidatzeko eta gogoeta egiteko: berdintasun-politiken eragina eta garapena, emakumeen jabetzaren pertsonal eta kolektiboa eta generoko rol eta estereotipoak zalantzan jartzea emakume eta gizonen jarrera eta portaera berdinzaleagoak garatzeko.*

Jarraian, adierazpena bozketara jarri eta, aho batez, **onartu da.**

10.Tolosaldeko Giltzarriaren adierazpena.

10.Declaración de Tolosaldeko Giltzarria.

Partehartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *"Lehenik eta behin, kontsulta, erreferenduma...egin nahi duenak, beharrezkoak diren konstituzioaren erreformak proposatu behar ditu, eta hori Eusko Jauriaritzari dagokio, Autogobernuko ponentziaren barruan eta Gernikako Estatutoaren berrikuntzan, alderdi sozialistak hainbat alditan eskatu duen bezala. Horregatik, puntu honi ezezkoa emango diot."*
- ... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *"Galdeketa onartzea Tolosaldera eta EHBildutik baieztatu behar da. Erabat babesten dugu eskubide demokratiko batetan oinarritzen dela uste dugu, sinesten dugu. Azken finean, Euskal herritarrok, gu geu izango gara gure etorkizunaren jabe edo gure etorkizunaz erabaki beharko genukeenak eta erabaki beharko dugunok. Azken finean, martxoaren 19koa horren gauzatze praktikoa da, guk gure etorkizunaz erabakitzeko ariketa praktikoa bat, azken finean gure garelako gure buruaren jabe eta izan nahi dugun horren erabakia hartu beharko genukeenak. Hartu genukeenak diot, orain arte hartzea galarazi izan zaigulako behin eta berriz. Galdetzeak eta galdeketa honek eta horrelako ariketa praktikoen, demokratikoen, elkarbizitzan laguntzen dute, sustraitzen dute. Azken finean gizarte baten ikuspegi desberdinak bateratzeko eta mahai gainean eztabaida publiko bat jartzea laguntzen dutelako. Batzuek, aldiz, esaten dute horrelako galdeketez gizarte haustura dakartela, krispazioa ekartzen dutela. Horiei esan horrela balitz hauteskunde prozesu oro zatiitzailea eta banatzailea izango litzakeela. Kurioso da arrazoi hori erabiltzen duten askok erregimen zaharrean, eta ez dut esaten Erdi Aroko erregimenean, baizik eta duela ez hainbeste Espainiako Estatuak 40 urte luzez neguan mantendu zuten, erregimenean horretan eroso bizi zirela dirudi. Beste batzuk diote, eta Cristiani entzun da, ordenamendu juridikoetatik hitz egiten digute edo eta eskubide hori euskal herritarrok gizarte honetan parte garen kideok baino Espainiako herriak duela. Hau da, ez dute eskubidearen kontra egiten, baizik eta egiten dute sujetu politikoa estatuaren baitan jarri. Eta uste dugu gakoetako bat, ñabardura inportanteena hemen datzala. Azken finean Euskal herritarrok, gu geok, gizarteak erabakitzen du zein den bere sujetu politikoa eta hori ez inposatzen ez ordenamendu juridiko eta ezta ditxosozko NANA edo plastifikatutako kartoi baten bidez. Batzuk nahi arren, hor, ez da inposatzen, norberaren izaera eta norberaren ikuspegi sujetua*

zer sentitzen den norberak erabakitzen duelako eta ez ordenamendu juridiko batek. Euskal Herriaren, Bilduren ustez, pertsonak lege guztien gainetik egon beharko lukete eta legeak erantzun beharko lukete pertsonen beharrei eta ez alderantziz. Kasu honetan, Espainiako ordenamendu juridikoa "Corsé" bat da euskal herritarrontzat eta garaia da "corse" hori askatzen joateko. Hau ez da izango, noski, azkeneko pausoa, ezta lehenengoa, baina argi dago bide luze bat dugula egiteko. Zentzu horretan txalotzen dut Gure Esku Dago plataformak martxan jarri duen kohesio olatu hau. Azken finean, ilusioaren bidez eta gure etorkizuna gu geuk erabakitzen hartuko dugulako kontzientzi zer izan nahi dugun izan eta nola nahi dugun eraikin. Argi dago elkarrekin eraiki nahi dugula baina ezezkoak ez dute ukatu herri honek aurrera eman nahi dituen pausoak. Horregatik mozioa babestearekin batera txalotzen dugu egiten ari zareten bide inklusibo guzti hau. Beraz, eskerrik asko."

... Alkatea: "Guk ere babestu egingo dugu adierazpena. Lehen ere herri honek erabakitzeko eskubidearen alde ibilbide bat ere baduelako, pauso batzuk emanak herri izaera eta naziotasunaren aldarrikapenean. Ez da gauza oso estrainoa eskatzen dena Europan hainbat horrelako galdeketa ere egin direlako. Hor Kursaallean egindako ekitaldian Artur Mas eta Juan Jose Ibarretxe egon ziren horretan. Uste dut Ibarretxek klabe bat eman zuela. Uste dut inportantea dela eta horregatik errepikatuko dut. Esan zuten errespetuz eta elkarrekin egin behar dugula bidea eta, gaineratu zuen, legeak ezin duela printzipio demokratikoen gainetik egon ere. Beraz, guzti horregatik adierazpena babestu egingo dugu."

Idazkariak mozioa irakurri du. Mozioak honela dio:

"Tolosaldeko Giltzarria herritar dinamika da, Tolosaldeko Gure Esku Dagoen enbor beretik sortua, eta gure herrian ere badu ordezkari bat. Martxoaren 19ko galdeketa antolatzea du xede, erabakitzeko eskubidea aldarrikatetik egikaritzera pasaz.

Eskualdeko herritar ororen bilgune izan nahi du Giltzarriak, erabakitzeko eskubidea, emaitzaren gainetik, gizarte kohesiorako dagoen tresna egokiena baita. Nolako Euskal Herria nahi dugun erabaki nahi dugu, gure herritik hasita, eskualdearen indarrak, eskualdeko biztanlearen iritziaren babesaz.

Udal honek, herritarren ordezkari bat duen heinean, begi onez ikusten du Martxoaren 19ko galdeketa, eta are gehiago, dei egiten die herritar guztiei bertan parte hartzera, iritzia agertzera. Herri bat garelako, erabakitzeko eskubidea dugulako eta herritarren garaia delako.

Guztion partehartzea ezinbesteko baldintza da erabakitzeko ariketa bat aurrera eramateko. Guztiok gara giltzarri. Martxoaren 19an, erabaki nahiaren espresio izango gara, ezberdinen arteko topagune, elkarbizitzaren giltzarri.

Europan martxan dabilen trena Euskal Herriko geltokira iritsi da, baita guk gobernatzen dugun herrira ere. Bertara igotzeko gonbitea luzatzen dizuegu herritar guztioi, honako galderaren inguruan zure iritzia ematera:

Nahi al duzu euskal estatu burujabe bateko herritarra izan?

Irudikatu dezagun jende zoriontsua herri libre batean. Bozkatu, zure iritzia jakin nahi dugu!"

Jarraian, mozioa bozketara jarri eta, EAJ-PNV (9) eta EHBildu (7) zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE (1) alderdiko aurkako botoarekin, gehiengoz, mozioa, **onartu da**.

11. “Guernica” Gernikara deituriko mozioa.

11. Moción denominada “Guernica” Gernikara.

Partehartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Eskaera honen atzean ikusten dudana motibazio politikoa gehienbat da. Margolana ekartzeak ez du inongo motibazio kulturalarik. Gure ustez, ekartze honek txosten tekniko sakon baten emaitzetan baldintzatuta egon behar du, koadroaren osotasuna bermatzeko. Otsailaren 17an, Anny Aviram, MOMAko Zaharberritze arduradunak, margolana hau tokiz mugitzea oso arriskutsua izango zela bere egoera txarragatik adierazi zuen. Horregatik txosten tekniko sakon bat egitea hoberena izango zen eta horregatik bozketa honetan abstenituko naiz.*
- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EHBildu): *“Argudio tekniko jarri daitezke mahai gainean Gernika ez ekartzeko baina argudio teknikoak ere jarri daitezke ekartzeko, alegia, dagoen teknologiarekin errestaurazioan marabillak egiten dituztelako. Beraz, Gernika bidaiatzeko moduan jartzeko badagoela uste dut, zer esanik arlo horretan. Guk diogu, EHBildutik dio Guernikak gernikan egon behar duela egon. Guernika sinbolo bat delako eta sinbolo hori egokien ordezkatzeko duen artelana edo jendeak identifikatzen duen irudia Picassoren obrarena delako. Egia da, gernikatzaleena izan zibila ez zela bonbardatzeko gerra taktika martxan jarri zuena, Euskalerrian bertan Durangon edo Estatuan Espainian gerra zibilak beste toki batzuetan horrelako teknikak abian jarri ziren. Egia da gero bigarren mundu gerran hori zabaldu egin zela bi aldeetatik bai alemanak Londresen bonbardatu zuenean, edo aliatuak Alemania suntsitu zuten bezala. Orain hori Sirian eta bestelako tokietan taktika bera erabiltzen dute. Teorian objetibo militarrek suntsitzeko baina benetan, aldi berean, populazioan errorea, ikara eta beldurra eragiteko eta etsaiaren morala suntsitzeko. Gernika sinboloa da, horregatik Guernikak Gernikan egon behar du, bertan gerratuan gertatutakoak oinarrituta pintatu zuelako Picasok kuadro hori. Horregatik bakarrik ez balitz ere, Guernikak bere tokian sinbologiari eusteko eta, hain zuzen ere, horregatik eskatzen dugu Guernika Gernikara. Ez da ekarpen politiko bat, da sinbologiaren eta esanahiaren aldarrikapen bat. Non egokiago artelanak berak ordezkatzeko duen hirian baino?”*
- ... Alkatea: *“Gernikako bonbardaketa salatze egin zuen Pablo Picasso-k Gernika margolana eta bereziki izan zen garrantzitsua margolan honen bitartez Espainiako errepublikaren aurka matxinatutako faxistek egindako sarraskiak munduari erakusteko aukera izan zelako. Gaur egun Reina Sofian dago XX. Mendeko artelana eta ikono garrantzitsuenetarikoa bihurtu dena, gerrateek gizakiei eragiten dieten oinaze izugarrien erakusle eta bakearen sinbolo. Baina Gernika ez zen bonbardatuta izan kasualitatez, Gernika aukeratua izan zuten faxistek bonbardatzeko Gernikak euskaldunontzat bazuelako lehen eta oraindik ere baduelako*

aparteko sinbologia Fasxistak desagerrarazi eta zanpatu nahi izan zuten eskubide eta askatasunen sinbolo zelako Gernika euskaldunontzat; Gernikako Batzar Etxea eta Gernikako Arbolak euskaldunon askatasun, eskubide eta justiziaren sinboloa. Gernika suntsitzearekin, azken finean, euskaldunon eskubideak suntsitu nahi izan zituzten indar frankistak eta ardura besteei egotzi izan zieten.

Garai zailak izan ziren, txuri-beltzean igarotako garaiak direla esan ohi da. Euskaldunok gerra ezagutu zuten baita ere erberestatzea.

Eusko Jaurlaritzaren lehen lehendakariak han egin zuen sinadura, apalik, eusko lur gainean zutik, arbolaren azpian. Gero beste lehendakari batzuek ere errepikatu zuten juramentua. Egia da Gernikako bonbardaketak Agirre Lehendakariaren ibiblbidea markatu zuela politikari eta pertsona bezala eta herriaren ibiblbidea markatu zuela baita ere, kontrako eragina izanik gure izaera eta kultura eta eskubideen aldarrikapenen mantendu delako herri hau Autodeterminazio eskubidea herrien Europa batean eskatu zuen orduan Agirre Lehendakariak eta gaur osoko bilkura honetan herritarroi galdeketa batean parte hartzeko eskaera eta gonbitea onartu berri dugu.

Eusko Jaurlaritzak behin baino gehiagotan eskatu du margolana Euskal Herrira ekartzea, baina Espainiako Gobernuak ez du orain arte horretarako baimenik eman eta horregatik, guztiagatik mozioaren alde bozkatuko dugu.”

- - - - -

Idazkariak mozioa irakurri du. Mozioak honela dio:

El Secretario procede a la lectura de la siguiente moción:

“GUERNICA GERNIKARA MOZIOA

“EI GUERNICA A GERNIKA

1937ko maiatzetik ekainera bitartean, Pablo Picasso margolari eta artistak Guernica” margolana sortu zuen. Lan honek salatzen ditu, egun batzuk lehenago, Condor Legio naziak, Francoren agindupean, Gernikan egindako bonbardaketa eta eragindako sarraskia, hain zuzen ere, Euskal Herritarren gune kuttun eta esanguratsuenetako batean. Beraz, aurten 80 urte betetzen dira, bai bonbardaketatik, baita honen aurkako garrasi artistikoa sortu zenetik ere. Urteurren hau, Gernika zein Euskal Herritarren beste eskaera eta garrasi bat zabaltzeko ere une egokia ikusten dugu: "Guernica" margolana Gernikan kokatu dadila behin betikoz.

Margolana 1937an sortu zen eta Parisko Erakusketa Unibertsalean kokatu zuten. Harrez geroztik mundu guztian ezaguna bilakatu da, giza eskubideen zanpalkuntza, gerraren eta herritarren aurkako jazarpena ozenki salatzen duelako.

El artista y pintor Pablo Picasso creó la obra Guernica entre el mes de mayo y junio de 1937. Este trabajo denuncia el bombardeo y la masacre que sufrió Gernika, uno de los lugares más queridos y significativos para los vascos y vascas, por parte de la Legión Cóndor nazi bajo el mandato de Franco.

Por lo tanto, este año se cumplen 80 años del bombardeo así como de la creación de este grito artístico, de esta obra pintada contra aquel bombardeo. Consideramos, así mismo, que este aniversario es el momento apropiado para difundir otra solicitud y otro clamor de los vascos y vascas: que la obra Guernica se instale definitivamente en Gernika.

La pintura vio la luz en 1937, y fue expuesta en la Exposición Universal de París. Desde entonces se ha hecho famosa a nivel mundial, por constituir una denuncia expresa de la vulneración de los derechos humanos, de la guerra y de la

Aipatutako artelanak ez du zentzurik Gernika eta bere historian lotua ez baldin ba dago, hura izan bait zen margolari ezaguna gertatuaren izugarrikeria salatzen eraman zuena. Horren jakitun, Gernika eta Euskal Herriak behin baino gehiagotan aldarrikatu izan du, aipatutako margolana Madrilgo Reina Sofia Museoa egon ordez, Gernikan bertan egotea dela egokia.

Behin baina gehiagotan eskari hau luzatu arren, Madrilgo Gobernu ezberdinek, bereziki garraio eta mantentze arazo teknikoak aipatuz, "Guernica" bere etxera ekartzera ukatu egin izan dira. Gaur egun, garraio eta mantenurako beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzeko arazorik ez dute Euskal instituzioek eta ez da sinesgarria egiten argudiategi hori mahai gaineratzea. Beste behin ere, Madrileko Gobernuak dituen interes ekonomiko zein politikoak daude "Guernica" Euskal Herrira ez ekartzeko arazo nagusien artean.

Sufrimendu guztien aitortza egingo duen memoria historiko bat eraikitzea ezinbestekoa den honetan, beste behin ere, margolan honek, bonbardaketa jasan behar izan zuen Gernika herrian kokatuta, bere indarra eta salaketaren sakontasuna biderkatu egiten duela aldarrikatu nahi dugu. Eta ezinbestean "Guernica"-k Gernikan egon behar duela. Ondorioz, honako mozio hau aurkeztu dugu Tolosako Osoko Udal Batzarrean, bertan eztabaidatu eta onartu dadin.

1. Udal honek, Gernikako herriaren aurka 1937an egindako sanaskian oinarritutako Picasso-ren Guernica margolanaren kokapenik egokiena, Gernika dela adierazten du. Gertaera historikoa, artelana eta herria bera uztartzea funtsezkoa dela adierazten du Udal honek. Ondorioz, "Guernica" Gernikara ekartzeko eskaera formala luzatzen dio

persecución contra la ciudadanía.

La obra en cuestión no tiene sentido si no se relaciona con Gernika y con su historia, que estuvieron en el origen de la denuncia de lo sucedido por parte del famoso pintor. Sabedores de ello, Gernika y Euskal Herria han reivindicado en más de una ocasión que el mencionado cuadro debería estar en Gernika, y no en el Museo Reina Sofía de Madrid.

Pese a haberles remitido una y otra vez una solicitud en este sentido, los diferentes Gobiernos de Madrid se han negado repetidamente a traer el "Guernica" a su casa, alegando fundamentalmente razones técnicas relativas al transporte y al mantenimiento. Hoy en día las instituciones vascas no tienen ningún problema en cumplir todas las condiciones necesarias para el transporte y mantenimiento de la obra, por lo que no tiene ningún sentido seguir defendiendo ese argumento. Una vez más, los intereses económicos y políticos del Gobierno de Madrid, entre otras razones, impiden que el "Guernica" viaje a Euskal Herria.

En este momento en que se hace imprescindible la construcción de una memoria histórica que reconozca todos los sufrimientos, una vez más queremos reivindicar que el hecho de ubicar el cuadro en Gernika, la localidad que sufrió el bombardeo, multiplica la fuerza y el calado de la denuncia. Por lo que, indiscutiblemente, el "Guernica" debe estar en Gernika. Así pues, presentamos esta moción en el Pleno Municipal de Laudio para su debate y aprobación:

1. Este Ayuntamiento quiere expresar que Gernika es la mejor ubicación para el Guernica de Picasso, ya que la obra parte de la masacre sufrida en 1937 por el pueblo de Gernika. Este Ayuntamiento considera fundamental fusionar el

Espainiko Gobernari eta Kultura Ministeritzari.

2. Udal honek, Eusko Jurlaritzari dei egiten dio, Picassoren Guernica margolana Gernikan kokatu ahal izateko beharrezkoak diren urrats instituzionalak eman ditzan. Baita ere, margolan hori Gernikan kokatzeko beharrezkoak diren azpiegitura eta egokitzapen lanetan laguntzeko ere.

3. Udal honek bere egiten du Picassok margolanarekin mundu guztira zabaldu nahi izan zuen salaketa, alegia, herrien zein giza eskubideen aurkako zapalketa, gerra eta genozidioaren salaketarik ozenenarekin.

4. Udal honek, erabaki honen berri emango die, Eusko Jurlaritzari, Espainiako Gobernu eta Kultura Ministeritzari.”

Jarraian, mozioa bozketara jarri eta, EAJ-PNV (9) eta EHBildu(7) zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE(1) alderdiko abstentzio botoarekin, gehiengoz, mozioa, **onartu da.**

acontecimiento histórico, la obra de arte y la localidad. En base a lo cual, solicita formalmente al Gobierno Español y al Ministerio de Cultura el traslado del “Guernica” a Gernika.

2. Este Ayuntamiento emplaza al Gobierno Vasco a dar los pasos institucionales necesarios que permitan ubicar el Guernica de Picasso en Gernika. Así como a facilitar las labores de adecuación e infraestructuras necesarias para instalar la pintura en Gernika.

3. Este Ayuntamiento se identifica con la denuncia que Picasso quiso difundir mundialmente a través de su pintura, esto es con la denuncia expresa de la guerra y del genocidio, y de las vulneraciones contra los derechos humanos y contra los pueblos.

4. Este Ayuntamiento comunicará el presente acuerdo al Gobierno Vasco, al Gobierno de España y al Ministerio de Cultura.”

A continuación, sometida a votación, **la moción es aprobada** por mayoría, con los votos favorables de los concejales de EAJ-PNV (9) y EHBildu (7) y la abstención PSE-EE (1).

12.Garoñako zentral nuklearraren inguruan EHBilduk aurkeztu duen mozioa.

Idazkariak mozioa irakurri du. Mozioak honela dio:

“1. Tolosako Udalaren Osoko Bilkurak Garoñako zentral nuklearra behin betiko ixtea eskatzen du eta bere instalazioetan

12.Moción presentada por EHBildu en relacion con la Central nuclear de Garoña.

El Secretario procede a la lectura de la siguiente moción:

“1. El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa exige el cierre definitivo de la central nuclear de Garoña y reafirma

material nuklearraren biltegia jartzearen aurkako jarrera azaltzen du.

2.Tolosako Udalaren Osoko Bilkurak, Espainiako Gobernuari zein Nuclenorri zentrala eraisteko beharrezko tramiteei ekiteko eskatzen die.

3.Tolosako Udalaren Osoko Bilkurak Espainiako Gobernuari eskatzen dio hura ditzala Segurtasun Nuklearreko Kontseilua despolitizatze beharrezko neurriak eta, bide honetatik, bertako presidente Fernando Marti Scharfhausen kargu uztea.

4.Tolosako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio Segurtasun Nuklearreko Kontseiluaren aholku batzordeko bere bi kidek defenda dezatela Erakunde honek zentralaren behin betiko ixtearen aldeko irizpidea.

5.Tolosako Udalaren Osoko Bilkurak adostu du, baldin eta Espainiako Gobemuak Garoñako zentral nuklearra berririkitzeko erabakia hartzen badu, hau eragotzi ahal izateko, hilabeteko epean, txosten bat eskatzea Udaleko zerbitzu juridikoei, beharrezko instantzia juridikoetara zuzendu ahal izateko. Txosten honetan, aurrera eraman daitezken ekintza juridiko administratiboen aukerak aztertzea eskatzen da, edozein esparru juridiko eta administratibotan, Garoña behin betiko ixteko.

6.Tolosako Udalaren Osoko Bilkurak pixkanaka energia eredua aldatzen hastea adosten du, erabiltzen duen energia elektrikoaren iturburua, nuklear edo fosila izatetik, berriztagarrietara aldatzen hastea. Zentzu honetan, Udaleko Ingurumen Departamentuko zerbitzu teknikoei proposamen honen bideragarritasuna eta gauzatzeko epealdia zehazten duen txosten teknikoa prestatu dezaten eskatzen da.”

su posición contraria a la apertura de un almacén nuclear en sus instalaciones.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa insta tanto al Gobierno central como a Nuclenor a que inicien de inmediato los trámites necesarios para el desmantelamiento de la central.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa exige al Gobierno central que tome las medidas oportunas para despolitizar el Consejo de Seguridad Nuclear (CSN) y cese de su cargo al presidente del mismo, señor Fernando Martí Scharfhausen.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa pide al Gobierno Vasco que inste a los dos miembros que forman parte del comité asesor del CSN a defender el criterio de esta Institución a favor del cierre definitivo de la central.

5. El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa acuerda solicitar a los servicios jurídicos del Ayuntamiento que, en caso de que el Gobierno de España adopte la decisión de reabrir Garoña, estudien las posibilidades de acudir a cuantas instancias judiciales sean precisas para impedirlo, así como la emisión de un informe, en el plazo de un mes, que analice las posibilidades jurídico-administrativas de actuación, en cualquier ámbito jurídico y administrativo, para cerrar definitivamente Garoña.

6. El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa acuerda que se den los pasos necesarios para garantizar que la energía eléctrica suministrada a sus dependencias tienda a la sustitución de fuentes nucleares o fósiles por las de origen renovable. En este sentido, se insta a los servicios técnicos del Departamentos de Medio Ambiente del Ayuntamiento a que preparen un

Jarraian, mozioa bozketara jarri eta, aho batez, **onartu da.**

informe técnico sobre la viabilidad de esta propuesta y los plazos que se estimen convenientes para hacerlo posible.”

A continuación, sometida a votación, **la moción es aprobada por unanimidad**

Partehartzeak:

... Ibai Iriarte San Vicente(EHBildu): “*Mozio hau aurkeztearen arrazoia argia da. Orain delako momentu egokia Garoñaren itxiera behin betikoa lortzeko eta ahalbideratzeko. Azken finean, Garoña Euskal Herriarekin mugan dagoen zentral nuklear bat da. Badakigu espainiar estatuan dagoen zentral zaharrena dela. Aspaldidanik zaharkitua, kadukatuta eta bere aurredeinoa kontutan izanda urteak izan behar lituzke itxita. Horrez gain, Garoñaren irekierak ahalbideratuko luke Espainian dauden beste zentral nuklearren luzapena jasotzea eta izatea. Ondorioz ez da bakarrik Garoñaren itxieraren aldeko mozioa, baita jarrerarena ere; energiaren nuklearraren etetea eta, azken finean, trantsizioaren alde bateko mozioa. Garaia da gure ustez, askotan esan dugu, epe luzeko energia ereduaz hitz egiteko eta politikak martxan jartzeko. Zentzu horretan, Garoñaren aurka edo Garoñaren ez berriro irekitzearen alde lana egitea momentu honetan inportantea dela iruditzen zaigu. Arrazoi nagusia segurtasun irizpidean datza, baina, bestetik ere, eredu energetikoa jasangarritasuna oinarri izango lukeen pausoak ematen hasteko garaia da. Eta bigarren ildo honetan pausoak denok eman ditzakegu, energia jasangarriaren alde. Energia politika efizientearen alde lan egitea denari dagokigu. Argi dago erantzukizun mailak desberdinak direla, batzuk Udaletik ere eragin dezakegu, bai energiaren efizientzian, hau da kontsumoa ahalik eta mugatuena bultzatzen, baita ere, sorkuntzari dagokionez, iturri jasangarri eta berriztagarriak sustatzen. Udal honek, baita aurreko legealdian ere, alkateen isuna sinatuta dauka, 2020 urtera begira energia berriztagarritan %20ko igoera, 0 isurketan %20 jaitsiera eta efizientzi energetikoan %20 hobekuntza adosten duena eta hitzartzen zituena. Orduan, gure ustez bide horretan jarraitzeko mozioa ere bada, arrazoiak ere baditugu zentzu horretan lanean jarraitzeko. Jada Udal hau hasia dago horretan eta Tolargiren figura interesgarria izan daiteke ibilbide hau gauzatzeko. Zentzu horretan horren alde legealdi honetan ere pausoak emateko prest egongo ginateke. Mozioetik kanpo egon arren, eta aztertzea merezi duena, Tolosako Udala eta bere sozietate eta baita udal eraikinak, argi kontratuetan, kaleko argiteria eta bestelako eraikin publikoetako argi instalazioetan eta kontratuetan Iberdrola eta Endesarekin, hau da, Garoñako Zentral nuklearraren jabeekin dituzten kontratuak izendatu eta ikusi, aztertu eta ahala balitz, aukera balego, hauek bestelako enpresekin kontratatzea: energia berrigarrietan enpresa ereduaren duten kooperatiba balitz edo enpresekin hitzarmena kontratu hauek egitea. Ondorioz, guk mozio hau aurkeztu dugu eta alde egingo genioke, baina iruditzen zaigu batzordeetan landu beharko genukeen gaia izan daitekeela: zer kontratu dauzkagun ikusi eta Iberdrola eta Endesarekin dauzkagun kontratuak aztertu eta, aukera balego, kooperatiba energetikoarekin pausoak eman. Eredu alternatiboak garatzeko garaian Udalak indar baduelako eta pausoak ematen jarraitu dezagun. Hau da, mozioa aurkeztu dugu eta mozioaren alde bozkatuko dugu, Garoña zentrala ixtekoaren alde.”*

... Patxi Amantegi Zubiria (Ingurumen Batzordeko lehendakaria): “*Mozio honi bi atal ezberdin ikusten dizkiot. Alde batetik, Garoña eta energia nuklearrari dagokiona, lehenengo bost*

puntu hauek. Hauek guri handiak gelditzen zaizkigu, horrelako gauzak teknikoki aztertu beharrekoak dira eta guk udaletxetik ez daukagun nahiko baliabide eta jakinduriarik. Nereak egingo ditut Lehendakariak aste honetan esandako hitzak, uste dut Eusko Jaurlaritzak izango duela honetan aditua izango diren pertsonak, beraz bere hitzak gureak egin ditzakegu. “La central de Garoña está más que amortizada después de 40 años. Es un riesgo evitable”. Beraz, honekin bat eginik eta ez daukagu gehiago esatekorik. Bai izango genuke zer esan guri dagokigun esparruan, seigarren puntu honetan hasi gaitzke lanean, aztertzen. Mozio hau ondo etortzen da hausnarketa, autorreflexio bat egiteko, zer egin genezakeen eta aurrera begirako pausoak emateko. Pausoka joateko energia sorreraren eredia aldatzeko gaitasun gutxi daukagu Udaletxetik. Produktua bilakatu beharko genuke, Zazpitrurrekin daukagun salto txikiarekin Tolosa guztian gastatzen denaren %2a sortzen dugu, autokontsumorako dauzkagu eragozpenak. Egia da Tolargirekin lan egin genezakeela, txertatu genitzakeela plaka solarrak eta horrelakoak. Horretan lanean ari gara. Tolosako enpresa batekin ikerketa batzuk egin ditugu: zer eraikinetan jarri ditzakegun plakak. Lehenengo ikusi egin behar da autokontsumoaren legeak ahalbideratzen digun, leku aproposak aurkitu; inbertsioak eskatzen ditu. Lurramendikoa ere begiratu genuen, kontsumo elektrikoaren %20a murrizteko aukera plakaren bitartez. Beste arazoak ere badaude, Feriala ere egokia izan liteke. Hori dena ari gara aztertzen. Bestalde, Eskualdeko energi mahaiari ere parte hartzen dugu. Bertan, ari gara aztertzen interesante izan daitezkeen bide batzuk, Biomasa erabilera, baso asko daukagu oso zaharkitua dagoena. Herrialdeko batzuk badute bereak diren baso dexente. Aztertzen ari gara ea herri batzuk lortu dezaketen energia biomasa honekin. Zuhaitzak, dakigun bezala, CO2 zikloa borobiltzen du, nahiz eta erretzerakoan CO2 isurtzen duen. Beste maila txikiago batean ere ari gara lanean biomasa kalderarekin. Ez da gauza handirik, baina Urkizuko elkartean jarri da emaitza onekin; Aldabako elkartean ere jarri dugu. Pauso txikiak dira, baina, Ibaik esan duen bezala, konpromiso batzuk hartuta dauzkagu. Efizientzi energetikoa sustatuko duen argiteria jarriko dugu, urtero egiten duguna luminaria aldatzea da. Honekin, bai herrian bai etxean, luminari zahar bat berri batengatik aldatzen denean, %80a murrizketa lortzen da. Esfortzu handia egin behar dugu. Beste puntua, adibidez, udaletxea berak daukan arazo handia berogailuarekin. Aurten sektorializatu egingo dugu. Orain martxan jartzen dugunean dena martxan jartzen da, gaizki xamar gainera. Inbertsio handia egingo badugu ere, dexente optimizatuko da. Polikiroldegiarekin ere saiakera haundia bat egin da, nahiko ondo dagoena, interkanbiadore batzuk jarri dira eta energia aprobetxatzeko sistema dexente egokitu da. Pauso txikiak baina garrantzitsuak dira. Edozein aldaketa txiki egiten dela ere, aprobetxamendu handia lortzen delako. Beste aldetik, Mankomunitatean aurten bukatzen da kontratua eta plegu berriak egiten ari dira. Eskatu dugu Tolosako udaletxetik plegu horietan kontutan edukitzea, hobekuntza bezala, kamioi elektrikoak erabiltzea ahal den heinean. Denak ezin dira elektrikoak izan dauzkagun arazorengatik, baina bai motor explosiokoak daukatenak eta kaja elektrikoak. Alde Zaharreko kartoia biltzeko proposatzen dugu kamioi txiki elektrikoak erabiltzea, arrandegikoak jasotzeko erabili genezake, eta Mankomunitatean jarraitzen badugu ideia horrekin, Tolosa, Villabona, Andoain, Ibarran erabili genitzazke kotxe berdina. Hau proposatu nahi dugu Europara proiektu bezala ea dirulaguntzarik lortzen dugun. Aipatu den bezala aldaketa haundia egin nahi ditugunean askotan joaten gara gauza handietara eta ez diogu erreparatzen gauza txikiak duten eragina, norberaren erreflexiora begiratu behar dugu. Ekintza txikiari ez diogu kasurik egiten, gutako bakoitzak egin dezakeguna. Erderaz esango dut “Piensa en global y actúa en local”. Ez daukagu zertan ekologistak izan beharrik, baina bai izan behar dugu ahalik eta ekologikoenak. “

13. Alkate kurduei elkartasuna adierazteko mozioa.

13. Moción en solidaridad con los alcaldes kurdos.

Partehartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *“Estatu kolpe saiakeraren ondorioz, Erdoganek errepresio bortitz bat hasi zuen eta horrekin jarraitzen ari da, giza eskubideak, demokrazia, prentsa askatasuna...urratzen eta ezabatzen. Erdoganeri eskatzen diogu errepresioarekin bukatzea eta estatu demokratikoan funtsezkoak diren urratutako eskubideak eta askatasunak berreskuratzea eta bermatzea.”*
- ... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez (EH Bildu): *“Hau salaketa eta elkartasun mozio bat da, eta testu inguru zehatza baten dator. Ez da iritsi martxoko bilkurara eztabaidatzeko eta onartzeko bakarrik, baizik eta martxoa 21ean, Nawroz izeneko eguna ospatuko dute kurduak, bizi diren lurralde guztientzat. Haien artean gure Aberri Eguneko antzeko eguna da. Gainera, apirilaren 16an Turkian egingo da konstituzioa berresteko erreferenduma, parlamentuak onartu duen konstituzioa. Egia esan Recep Tayyip Erdoganek AKP partidua bultzatu duena, baina gogoratu partidu horretan 10 diputatu falta direla, kargugabetu dituztelako eta honetako batzuk tartean HDPko alderdiko bi presidente kideak kartzelan daudela momentu honetan eta bere parlamentari kargua kendu egin diete. Estatu kolpea, orain dela urtebetekoaren aitzakia ederra izan da Erdoganentzako Turkian erregimen autoritaria abian jartzeko, boterea bere gain kontzentratzeko, bai botere exekutiboa, legislatiboa eta baita judiziala ere neurri batean. Konstituzio berriak epaileak izendatzen ahalbideratuko dio presidenteari eta tartean aprobetxatu du oposizioan izan daitekeen guztiaren, ez bakarrik turkoei, armenioei, grekoei, arabiarren edo bestelako gutxiengoaren, edo ezkerreko oposizioaren eta berak bezala pentsatzen ez duten bezalakoek kontra aritzeko Estatu kolpea babestu zutela. AKP alderdiak hasiera hasieratik jarri zela estatu kolpearen aurka. Testu inguru honetan argia da Europako parlamentuan azaroan hartutako erabakia, eta bide horretan argi dago eta estatu gabeko nazio bezala, errepresioa jasan izan dugun bezala eta autotarismo ondo ezagutzen dugun bezala gure elkartasuna adieraztea herri kurdoari, batetik, egoera honetan dauden alkateei bestetik eta baita Turkian errepresioa, giza eskubideen urraketa, lanpostuen galera pairatzen ari diren demokrata guztiei. Izan ere, momentu honetan arriskuan dagoena balore demokratikoa da, demokrazia bera eta giza eskubide guztiak. Horregatik bozkatuko dugu mozioaren alde.”*
- ... Alkatea: *“Gureak egiten ditugu Iñaki Irazabalbeitiak eman dituen argibideak. Beraz, guk ere bat egingo dugu mozioarekin.”*

Idazkariak mozioa irakurri du. Mozioak honela dio:

“Elkartasuna alkate kurduekin

2016ko uztailaren 15ean estatu-kolpe saioa egon zen Turkian Recep Erdogan presidentearen gobernuaren kontra. Harez gero, eta saioa hori aitzakiatzat hartuta, Turkiako gobernuak lehenagotik zetorren errepresioan eta giza eskubideen urraketan sakontzeari ekin zion.

Errepresioaren ondorioz 2016ko uztailetik hona, 100.000 bat mila langile publikok beren lana galdu dute, 700 inguru unibertsitate-irakasle egotzi dira, 1.500 gizarte zibileko erakunde legez kanpo utzi dira eta hamarnaka batzuk komunikabide itxi dira. Halaber, ordezkari politikoak kartzelatu egin dira, nagusiki, herri kurduaren ordezkariak. Ezin da ahaztu, bestalde, Turkiako armada Kurdistango lurretan egiten ari dituen operazio militarrek zeinetan herriak suntsitzeaz gain ehunka zibil hil dituen.

Bestetik, azken hilabete hauetan zehar, 50tik gora herri kurduetan herritarrek demokratikoki aukeratutako alkateak dekretuz kargugabetu ditu Turkiako gobernuak inongo prozesu judizialik gabe. Horietako 39 kartzelan sartu dituzte. Erdonganen AKP alderdiko kideez ordeztu ditu Turkiako gobernuak, muzin eginez herritarrek demokratikoki adierazitako aukerari.

Oinarrizko giza eskubideak, askatasun demokratikoak eta adierazpen-askatasunak balio gutxiko baloreak dira gaur egun Turkian, bereziki, gobernuan dagoen AKP bezala pentsatzen ez duten herritarrentzat.

Horren guztiaren ondorioz Tolosako udalaren osoko bilkurak honokoa erabaki

El Secretario procede a la lectura de la siguiente moción:

“Solidaridad con las Alcaldías kurdas

El 15 de julio de 2016, en Turquía hubo un intento de golpe de estado contra el gobierno de Recep Erdogan. Posteriormente, y tomando como coartada ese intento, el Gobierno de Turquía comenzó a profundizar en la represión y en la vulneración de derechos humanos iniciado con anterioridad.

Como consecuencia de la represión, desde julio de 2016 a la actualidad, 100.000 personas empleadas públicas han perdido su trabajo, unos 700 profesores y profesoras universitarios han sido expulsados, 1.500 organizaciones de la sociedad civil han sido puestas fuera de la ley y decenas de medios de comunicación han sido clausurados. Además, han encarcelado a personas con representación política, sobre todo, a la representación del pueblo kurdo. No se pueden, olvidar, por otro lado, las operaciones militares que lleva a cabo el ejército turco en tierras de Kurdistán, que, además de destruir poblaciones, han ocasionado la muerte de miles de civiles.

Por otro lado, a lo largo de estos meses que hemos dejado atrás, el Gobierno turco ha despojado de sus cargos en más de 50 poblaciones kurdas a las alcaldías democráticamente elegidas por la ciudadanía, sin ningún tipo de proceso judicial. 39 de esas personas han sido encarceladas. El Gobierno de Turquía los ha sustituido con miembros del partido AKP de Erdogan, despreciando la opción que eligieron democráticamente los ciudadanos.

Los derechos humanos básicos, las libertades democráticas y las libertades de expresión son valores de poca monta hoy en día en Turquía, especialmente para la ciudadanía que no piensa como el AKP que está actualmente en el Gobierno.

du:

1. Salatzen duela azken urteotan, eta bereziki 2016ko uztailaren 15eko estatu-kolpe saioaren ondorioz, Turkiako gobernuak hartu duen jite autoritarioa, zeinen ondorioz herritarren oinarrizko giza eskubideak eta printzipio demokratikoak etengabe larriki urratzen ari baitira.

2. Bereziki larria iruditzen zaiola herritarrek demokratikoki hautatutako ordezkariak, alkateak kasu, gobernuak dekretuz kargugabetu izana.

3. Elkertasuna adierazten diela alkate horiei eta arrazoi politiko soilengatik kargugabetu edo kartzelatutako ordezkari politikoei.

4. Bat egiten duela joan den azarearen 24an Europako Parlamentuak hartutako erabakiarekin non Turkiaren adhesio-prozesua izoztea eskatzen baitzen, estatu horretan demokraziaren oinarriak jasaten ari diren higadura arrazoitzat hartuta.

5. Eskatu egiten diola Turkiako gobernuari errepresioarekin buka dezala, oinarrizko askatasun demokratiko guztiak berrezar ditzala eta lehenera diezazkiekeela errepresioa sufritu duten herritar eta erakunde guztiei aurretik zituzten eskubide guztiak, lanpostura itzultzekoa barne.

6. Erabaki honen berri ematea Turkiako Errepublikak Madrilen duen enbaxadoreari.”

Jarraian, mozioa bozketara jarri eta, aho batez, **onartu da.**

Por todo ello, el Pleno del Ayuntamiento Tolosa acuerda lo siguiente:

1. *Denuncia el cariz autoritario que ha tomado el Gobierno de Turquía durante los últimos años, especialmente desde del golpe de estado del 15 de julio de 2016, ya que a consecuencia de él se están vulnerando grave y continuamente los derechos humanos de la ciudadanía y los principios democráticos básicos.*

2. *Considera especialmente grave que la representación política democráticamente elegida por la ciudadanía, como son las alcaldías, sea destituida por el Gobierno mediante decreto.*

3. *Manifiesta su solidaridad a esas alcaldías y a la representación política destituida o encarcelada únicamente por razones políticas.*

4. *Hace suyo el acuerdo adoptado por el Parlamento Europeo el pasado 24 de noviembre, en el que se instaba a congelar el proceso de adhesión de Turquía, basándose en el deterioro que están sufriendo los pilares de la democracia en ese estado.*

5. *Insta al Gobierno de Turquía a que cese la represión, a que restablezca todas las libertades democráticas básicas y a que devuelva todos los derechos que disfrutaba la totalidad de la ciudadanía y de los organismos que han sufrido la represión, incluido el derecho a retornar a su puesto de trabajo.*

6. *Aprueba remitir este acuerdo a la Embajada de la República de Turquía en Madrid.”*

A continuación, sometida a votación, **la moción es aprobada por unanimidad.**

Gai zerrendatik kanpo eta gaiaren premiatasuna aho batez, onartu ondoren honako gaia aztertu da:

13. Altsasuko gertaeraren inguruan atxekimendu eskaera.

Partehartzeak:

- ... Ibai Iriarte San Vicente (EHBildu): *“Azkeneko momentuan pasa zaigu mozio hau, baina erabat bidezkoa ikusten dugu eta, nola ez, aldeko bozka emango diogu. Badirudi amets gaiztoa dela: badirudi abenduaren 28an inozente egunaren baitan sortutako broma gogor bat dela; baina hemen daude Altsasuko dozena bat gazte beste dozena bat urte pasa dezaketenak espetxean. Hasiera bateko taberna eta parranda bateko saio batetik sortutako astakeri hau montaje batean bilakatu da eta oraintxe bertan geldiezin den monstro bat da, zeinak dozena baten lagunak bizitza erabat baldintzatu duen dagoeneko. Oraindik hiru lagun espetxean dira, prisio prebentiboan; beste batzuk lapurtzen dute eta ondoren kanpoan dauden bitartean, hauek espetxean ditugu; beste batzuk pasa dira, baina pasa edo ez bizitza erabat baldintzatu diete. Nahiko genuke aipu bat egin, aste honetan bolo-bolo ETB1eko saio batean, non zenbait komunikabidek saioaren aurka egin duten, ideia mingarriak jaurtiki dituztela esanez, eta asko komunikabide horiek izan dira gazte hauen aurka eta gazte montaje hau elikatu dutenak, hauek izen abizenak agertu dituztenak, bere aurpegiak erruduntzat jo dituztenak, epaitu izan aurretik. Kurioso da zenbait komunikabideek aztoratu diren saio hauengatik eta, aldiz, nola elikatu dituen, eta ez bakarrik Altsasuko kasuarekin, baizik eta askotan ikusi izan dugu epaitu aurretik euskal aferaren baitan eta salbuespen legearen behin eta berriz gaizkilentzat jo dituzten eta gero ezer ez den gertatu beraiekin. Beraz, guk babesten dugu idatzi hau, baina aipu hori eginez: komunikabide aldetik zer nolako bi mailetan bereizten diren eta nola batzutan izugarritzko mina sentitzen duten zenbait kontuen aurrean eta beste batzuetan munstro eta injustu eta erokeri hau elikatzen duten. “*
- ... Alkatea: *“Puntu hau urgentziaz sartzeko arrazoi bakarra da gaur bertan jaso dudala korreo elektronikoz eskaera Altsasuko Udala eta Nafarroako Legebiltzarrak erabakitakoarekin bat egiteko, non eskatzen dena da, bakar-bakarrik epaiketa Iruñean bertan egitea, normala den bezala. Horrekin bat egingo dugu eta horregatik ekarri dugu gai zerrendatik kanpo eta korreo elektronikoz helaraziko dizuet beste hautetsi guztiei. Hori da eskaera, nik ez nuke egingo beste alderaketarik ETBko programa horrekin. Ez dut oso ondo ikusi alderaketa hori, baina, hori bai, adierazi hemen eskatzen dena zentzuzkoa dela, epaiketa hori Iruña bertan egitea eskatzea.”*

Idazkariak atxikimendu idatzia irakurri du. Honela dio:

“ALTSASUKO GERTAERAREN INGURUAN ATXEKIMENDUA

Altsasun 2016ko urrian izandako gertaeren harira zenbait gazte terrorismo delituagatik inputatuak izan ziren; gure ustez prozesu horren izapideak Iruñan egin beharko lirateke, izan ere epaitzeko eskumena tokian-tokiko epaitegiei baitagokie eta ez Entzutegi Nazionalari. Hori hala izan behar lukeela adierazi dute zenbait erakundek, nabarmenki Nafarroako

Legebiltzarrak, baita jurista eta Unibertsitate-irakasle ugari ere. Horren harira, Tolosako Udala Nafarroako Legebiltzarrak eta Altsasuko Udalak egindako eskaerarekin bat egiten du.”

Jarraian, atxikimendu idatzia bozketara jarri eta, aho batez, **onartu da.**

14.Galderak eta eskaerak

14.Ruegos y preguntas

Atal honetan ez da izan galdera-eskaerarik.

Besterik gabe, gaueko bederatzia eta laurdenetan bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las 21 horas y 15 minutos de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA